

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4874

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ekintza humanitarioko proiektuen lerroko ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak ematen baitira 2021erako.

Ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuan, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dira, eta bi jarduera-mota bereizten: alde batetik, ekintza humanitarioko proiektuak, krisi humanitarioen eraginpeko pertsonak babesteko direnak; eta beste aldetik, ekintza humanitarioko estrategiak, epe ertaineko eta aurrekontu handiagoko esku-hartzeak direnak, zeinek, aipatutako babes-ekintzez gain, erakunde humanitarioak sendotzeko eta euskal herritarrek sentsibilizatzeko bestelako ekintzak ere jasotzen baitituzte.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2021eko martxoaren 9ko Ebazpenaren bidez (2021eko martxoaren 17ko EHAA, 55. zk.), ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzak iragarri ziren 2021eko ekitaldirako. Laguntza horien zenbatekoa, guztira, 6.000.000 eurokoa da.

Aipatutako deialdi-ebazpenaren 4. artikulua horretarako izendatu duen Balorazio-batzordeak laguntzak emateko egin duen proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak laguntza-eskaerak baloratu eta eskaera horien azterketa teknikoa egin eta gero, proposatu da 7 eskabide onartzea. Horien zenbatekoa, guztira, 1.394.954,00 eurokoa da. Ondorioz, aipatutako deialdirako emateko geratzen den zenbatekoa 1.412.415,96 eurokoa da. Hori guztia kontuan hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean jasotako erakundeei ematea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2021eko martxoaren 9ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak, eranskin horretan aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– Baztertzea ebazpen honen II. eranskinean ageri diren erakundeei aurkeztutako eskaerak, eranskin adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Ebazpen hau entitate interesdunei jakinaraztea.

Laugarrena.– Agindua ematea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko, herritar oro jakinaren gainean egon dadin.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpenik eman gabe, errekurtsoa ezetsitatu hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 19a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2021eko irailaren 23a, osteguna

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza (eurotan)
PRE-2021EH/0020	Asociación Comité Español de la UNRWA	Garantizando el acceso a la salud primaria a través de puntos de salud en localidades aisladas del norte de Cisjordania	Palestinako Estatua	53	200.000,00
PRE-2021EH/0021	Asociación Comité Español de la UNRWA	Contribuyendo al ejercicio del derecho a una vida digna de la población refugiada de Palestina en la Franja de Gaza en situación de pobreza a través de la ayuda alimentaria	Palestinako Estatua	51	200.000,00
PRE-2021EH/0023	Farmacéuticos Mundi	Proteger el derecho a la salud en un contexto de desplazamiento prolongado y de retorno sin garantías en la región de Ninewa y el Kurdistan iraquí, agravado por el impacto de la crisis de salud pública global por COVID-19	Irak	57	200.000,00
PRE-2021EH/0024	Asociación Comité Español de la UNRWA	Contribuyendo a la resiliencia y condiciones de vida dignas de la población refugiada de Palestina en Siria a través de la ayuda en efectivo.	Siria	53	200.000,00
PRE-2021EH/0025	Fundación Save the Children	Respuesta humanitaria a las necesidades educativas y de protección de niñas y niños, afectados por el conflicto armado en Maguindanao, Filipinas	Filipinak	51	200.000,00
PRE-2021EH/0026	Asociación España con ACNUR	Mejora de las condiciones nutricionales de niños y niñas, mujeres embarazadas y lactantes refugiadas en Etiopía	Etiopia	53	194.594,00
PRE-2021EH/0027	Fundación Oxfam Intermon	Protección a la vida: Mujeres, Adolescentes y Jóvenes migrantes de comunidades de acogida fortalecidas y dignificadas. Departamento de Arauca, Colombia	Kolombia	56	200.000,00

2021eko irailaren 23a, osteguna

II. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Arrazoia
PRE-2021EH/0022	Asociación de Amigos y Amigas de la R.A.S.D. de Álava/SEADEN LA	Apoyo psicosocial a las mujeres de la Escuela. Escuela Mártir al-Za`ra Hamdi Muhammad Abdul Rahman	RASD	Ez du betetzen 90/2019 Dekretuaren 16.1 artikuluan jasotako betebeharrak, hain zuzen ere gutxienez 50 puntu lortzea